

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Emakume noblea behe erdi aroko euskal herrian: Juana de Butrón Mújica

Egilea

Olatz Abad Ortega

Gradua

Historia

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

4. Kalitatezko hezkuntza,
5. Genero berdintasuna

Laburpena

Lan honen bidez frogatu nahi dut behe Erdi Aroan emakume nobleek izan zuten benetako garrantzia argitara ematen duten datuak aurkitu direla, garaietan zehar eman zaien ikuspuntutik urrun. Zorionez, joera berriak sortzen ari dira, alderdi asko birplanteatuz. Ikerketaren bidez, Erdi Aroko emakumeen ekarpenak zein izan ziren jakitera hel gaitzke, eta iraganeko gizartearen ikuspegi orokorragoa lortu. Azken finean emakume ez oso ezagun bat aukeratu dut, bere senarrari buruz asko dakigulako baina bera historian zehar ahaztuta geratu da. Era berean, Erdi Aroko emakumeak kolektiboki edo adibide konkretuen bitartez ikertuak izan dira, eta bidea hasita dagoen arren, denbora eta atentzio gehiago eskeni beharko genioke. Ez soilik ezagutza historikora mugatuz, baizik eta gaur egungu mundua ulertu eta, akaso hobetu aldera. Azken finean, historialarien lana ez da soilik iraganeko gertakizunak aztertzea mugatzen; funtzio sozial bat betetzen dute. Salatzea eta hezteak, beraz, ezinbestekoa deritzot. Gaia laburtuz, Juana de Butrónek (1400-1469), Lope García de Salazar-en emaztea, bere semearen etorkizunaren alde borrokatu zuen, senarraren aurka. Familia zatituko zuten liskarrak aztertuko ditut, izan ere, oinordekotza arazoak egon ziren eta elkar egindako lehen maiorazkotik 1451an, arazo asko agertuko dira. Juana andreak, Bizkaiko ohitura tradizionalak jarraituz, bere seme nagusiaren alde jokatu zuen. Istorio berezi eta konplexu honetan, emakume honek izandako protagonismo aktiboa plazaratuko dut, zeinak 1469.urtean bere kabuz maiorazkoa egin zuen, Loperen nahien kontra.

2030 Agendaren GIH Ekarpinak

Unibertsitatean eskoletako argitaletxe desberdineko hainbat liburu aztertu ditugu eta emaitza espero genuena izan zen, hots, normalean emakumea bigarren mailan aurkezten zutela. Etorkizuneko irakasle moduan, pentsamendu hauekin amaitzea eta Emakumearen Historia arlo guztietan irakastearekin amesten dut. Horrela hasi zen nire GRAL-en gaia, Emakumeen Historia sustatzeko. Tamalez, irudi eta diskurtso bat sortu da, non emakumeak menpekoak diren, nahiz eta alderdi batzuetan oso ahaltsuak izan. Nire ikerlanaren protagonista, hots, Juana de Butrón, emakume ahaltsu baten adibide bikaina dela uste dut, 2030ko agendaren helburuak jarraituz. 4 eta 5 ataletan oinarritu naiz, batez ere genero ikuspuntua landuz, beti ere Historia graduan ikasitakoa praktikan jarritz. Hezkuntza inklusibo eta berdina batera goazela argi dago.